

Tomax Karrera

Preso ohia

Hirugarren espazioa eta Ajuria Eneko eta Iruñeko itunak

(Ezin mintza daitekeenaz mintzatu egin behar da).

Sarritan Euskal Herriko koiuntura politikoa abiadura handikoa izanik, ez dugu aukerarik izaten agerturiko fenomenoak behar bezala hausnartzeko, edo eman diren aldaketak baloratzeko. Koiuntura berriak zaharra ahazten eta gertaera berriek zaharrak estaltzen dizkigutela, alegia. Egun hauetan Ajuria Eneko Itunak bere hamargarren urtebetetzea ospatzen omen du. Gure herri sofitu honetan porrotak ospatu egiten dira, gero eta porrot handiagoa, gero eta ospakizun itzelagoa.

Madrirek diseinatu eta Ajuria Eneak eta Iruñeak onartu eta praktikan jarri nahi izan zuten Ezker Abertzalearen politikako estrategia demokrazia espainiar honen muga politikoetan oinarritzen zituen, hots: 1978ko Konstituzioa eta Gernikako Estatutua. Demokrazia espainiarrak, Itunak bidez, Ezker Abertzalearen proiektu politikoa deus ezatatu edota marjinal bihurtzeko *apartheid* politikoa- ren sistema burutu zuen. Ideia horren garapenean, *apartheid* soziala ere planteatu dute. Tresneri politiko zein mediatiko osoa horren pean jarri zuten.

Jaungoikoak baino azkarragoak nonbait, arratsalde batean bi espaziozko sistema sortu zuten. Berriro beste politikotomia nagusi: lehen espazioa, demokratak, ongipen salaria; bigarren espazioa, biolentoak, gaizki jaiokak. Azken hamar urte hauetan Ezker Abertzaleari inposatutako *ghettizazio* prozesua oso nabarmena izan da: komunikabideetan, instituzioetan, auzo eta herrietan... *Ghetto*-etan Ezker Abertzalea nolabaiteko babes segurtasuna aurkitu du. Ezker Abertzaleko egungo gaitze gehienek *ghettizazio* fenomeno pil-pilean bizi izan dira. Kale borroka ulertzeko, Ajuria Eneko aulkietan esekitzen direnek eta UPVko hainbat funtzionario intelektual hobe lukete haiek sortutako sistema honetaz eta Euskal Herrira ekarri dituen ondorioez hausnartzea, betiko kondena telebisatuak eta immobilismo politikoa erakusten baina. *Apartheid*-ak bi espazio, bi esparru oso nabarmen markatzen ditu. Bi espazio horiek Ezker Abertzalea inarritzen, heriotza astiro batera eramateko zuten helburu. Beste alderdi politikoak, Iruñeko eta Gasteizko itunetan blokeatzeko. Azken finean, Madridek agintzen eta ordaintzen du. Azken hamar urte hauetan Madrid pozik ibili da, ez du inolako desgasterik sofritu eta, aldiz, atera dituen etekin guztiak bere aldekoak izan dira.

Gatazkaren luzapena, espainolizazioaren aurrerakada, eredu ekonomiko neoliberalaren inposaketa eta Gernikako Estatutuaren akidura politikoa- ren aurrean erre-

flexio gune eta elkarrizketarako balio duen espazio irekia sortu duena Euskal Herriko gizartea izan da. Immobilismoak, gatazkaren luzapena ekartzeaz gain, etsipen soziala eta nekadura dakar. Hiru elementu horien eta ondo prestatutako kanpaina mediatiko baten bidez, Estatu-faxismoaren ate aurrean uzten gaitu. Gainera, urte hauetan Ezker Abertzaleak bere proiektu politiko osoa garatu egin du, heldutasun politiko maila handituz, nahiz eta bere eguneroko dinamikan *ghetto*-ak ematen duen ziurtasuna eta kontraste eza nolabait baldintzatu eta hainbat inertzia sortu. HBk eramandako estrategia horren lekuko. Ezker Abertzalearen barruan, lan sozialari lehentasuna eman diotenak hirugarren espazioan aritu diren lehendabizikoak izatea ez da kasualitatea izan: LAB sindikatua eta Amnistiaren Aldeko Mugimendua, hain zuzen.

Zer esanahi politikoa du hirugarren espazioak? Ajuria Eneko eta Iruñeko porrot politikoa adierazten du. Beraz, Madriko estrategia orokor baten porrota. Hirugarren espazioa gune bat da non egungo esparru juridiko politikoa gainditu nahi duten guztiak biltzen diren, non konponbide politiko eta negoziatuaren aldeko jarrera dagoen, non eredu ekonomiko neoliberal aldatu nahi duten. Elkarrizketa politikorako balio duen esparrua. Ajuria Eneko eta Iruñeko atarramendu politiko antzua ikusita: gatazkaren luzapena, Euskal Herriaren espainolizazioa eta eredu ekonomiko nagusiaren inposaketa erraztea. Ez da harritzekoa, beraz, sindikatuek eta indar sozialek eta intelektualek duten garrantzia hirugarren esparru honetan. Euskal gizartean hamar urtetako immobilismo politikoa kalte gehiegi sortu ditu.

Aurten alderdi politikoei dagokienez, PNV eta PSOEko hainbat sektorek Euskal Herriko subiranotasunaz duten indefinizioa argitu beharko dute. EA eta IUri gero eta zalago suertatuko zaie Ajuria Enean mantentzea eta hirugarren esparruan, benetako euskal bloke demokratikoa, ez egotea. Dena dela, Ajuria Eneko alderdi abertzaleen tragedia non kokatzen den ederki pairatu dugu Euskal Herriko independentzia lortu nahi dugunok: ez dutela auzardiarik Madriko agintariei aurre egiteko, ez direla haien ahotsaren jabe, behin eta berriz nolabaiteko menekotasun eternala adierazten dutela, nahiz eta konbentziturik egon PPK diseinatu duen estrategia PPri eta espainolismo orori soilik benefiziartzeko diela, azken finean Euskal Herriko kalterako dela. Errepikatzen den azken hogei urtetako tragedia baita. Aldiz, HBk bere zabaltze barne prozesua bultzatu eta eraikuntza nazionalaren proiektua garatu beharko du. Etorkizuna xeble benetan. ■

Josu Lartategi



Jertse hegalaria

Gogoan ditut ume denboran nagusiei entzuten nizkien kantak, kanta politikoa esan nahi dut, eta gogoan dut espektro politiko kasik osoko jendeak zebiltzala kantari. Hogeita zortzi urteko nire memoriatxoan, erregimenzaleek (sasoi batean) eta AP delako alderdikoek (geroago) izan ezik, nagusi guztiek aho batez oihukatzen dute *Que se vayan, se vayan, se vayan...* Horratx jeltzaleak eta jeltzaleak eta oro har ezkerrekoak, denak nire oroitzapenetan kantari! Ondo gogoan dut nola egun batean, eta nik zergatik ez nekiela, indarberriturik hasi ziren kantuka: *voló, voló... y hasta el tejado llegó*. Eta kantak bitxiak ziren niretzat, ondo ulertzen ez nituen gauzak aipatzen zituzten eta, baina nik festa, parranda eta pozarekin lotzen nituen. Txikitako imajinen artean Zarauzko berbena bat dago, eta jendea jertseak airean jaurtitzen, eta barrea eta algara guranon, eta berriz ere hegan egitearen aipua. *Voló, voló...* Eta alaitasuna kutsatu egiten zen, nintzen umearentzat sentsazioak zirelako nagusi, formak agintzen zuelako eta ez esanahiak, eta are gutxiago egia politikoei. Ez dakit zehatz noiz hasi nintzen ume-begirada galtzen; alegia, energia eta abesti eta poz horien guztien arrazoiak ulertzen. Harrezkeroztik inuxente izateari utziko nion, diñot nik.

Nire itauna hau da: non sartzen ziren garai hartan bakezaleak?, eta biolentziaren kontrakoak? Zenbat jendeak jaurti du jertsea airean eta kanta sonatua abestu? Nire itauna haratago doa: Zarauzko orduko gizon-emakume alai eta kantariak eta Zarauzko oraingo eskandalizatuak ez al dira ente fisiko bera? Ni ume koxkorra baino ez nintzen, ezjakina, maneiakorra... baina zuok, berrogeitapikutik gorakook, non zeundeten eta zer abesten zenuten? Eta azken duda bat, barruak kirioetaraino jaten dizkidana: sasoi hartako jertse hegalaria oraindik janzen al duzue?

Kornerra

Mikel Elorza

Hitzeekin jolasean

■ Anjel Lertxundik dotore erakutsi zigun hitzek badutela aurkia, ifrenzua eta kantoia. Azken hau ertz bihurtzen da batzuetan eta maiz hiztunari berrari ebakia egiten dio.

Kale borroka deituriko erasoei erantzuten noiz hasiko galdezka omen dauzka asko Xabier Arzalluzek. Galga jarriko balie bezala kontatu du. Gaur egun erasoak asko eta era askotakoak direlarik, kolpeari kolpez erantzutea oso litekeena da, askoren pazientzia ere erretzen baitute koktel arinek. Ordea, jakin beza Arzalluzek, esan dituenak esanda, eta besterik esan nahi bazuen ere, hatzak beragana jiratu direla gerta dadinean. Berak ezagutzen ditu erantzuteko prest daudenak. Eurak ez direla izan frogatu beharko du orduan.

Felipe Gonzalezek ere bota du «GAlen ardura 83-86ra mugatzea bidegabekeria litzateke». Hortaz, ardura badago, urte horietan eta beste batzuetan. Pentsa dezala akusatua, epaileari «baina nik bakarrik ez nuen lapurtu» esatearekin, ez dela delitutik libro.

L A P I h I T Z A

